



ARANTZAKO UDALA

ARANTZAKO PILOTALEKUA BIRGAITZEKO OBRA KONTRATUA

-A GUTUNAZALA IREKITZEA (DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA)- BEHIN BETIKO ONARTUA

- **TOKIA:** Arantzako Herriko Etxea.
- **EGUNA:** 2026-04-22
- **ORDUA:** 14:30
- **KONTRATUAREN XEDEA:** Arantzako pilotalekua birgaitzeko obra kontratua.
- **PROZEDURA:** Irekia.
- **TRAMITAZIOA:** Arrunta.
- **UNITATE KUDEATZAILEA:** Nagore Madariaga Iriarte, Arantzako Udaleko idazkaria.

Arantzan, 2026ko apirilaren 22an eguerdiko 14:30ean Arantzako Herriko Etxean egindako barne ekitaldian, Unitate Kudeatzaileak apirilaren 3ko 50/2026 Alkate Ebazpen bidez onartutako plegu arautzailean xedaturiko "Arantzako pilotalekua birgaitzeko obra kontratua" lizitazioaren izapideekin jarraitu du.

Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen (hemendik aitzin KPFL) 51.1. eta 96. artikuluetan xedaturikoaren arabera, hemen adierazitako lizitatzailleak (bakarra) aurkezturiko A gutunazala ireki da eta, dokumentazioa zuzena dela egiaztatu da:

ENPRESA IZENA:	IFK ZENBAKIA:	EGOERA:
I.M. ARRIXKO IGELTSERITZA, S.L.	B71143911	ONARTUTA

Horrela bada, KPFLko 97. artikuluan eta plegu arautzaileko 14. klausulan xedaturikoari jarraiki, B gutunazala (Formulen bidez kuantifikagarriak diren irizpideekin lotutako dokumentazioa) gaurko egunean bertan, eguerdiko 14:50ean irekiko dela iragartzen da.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, honako hau sinatzen dut.

Arantzan, sinadura digitalean adierazitako datan.

**UNITATE KUDEATZAILEA,
IDAZKARIA,**

Nagore Madariaga Iriarte